

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

66 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

KATALUINIAK eta EUSKAL HERRIAK erabakitzeko eskubidea dute

Errepresioa garaitzeko eta
eskubide demokratikoak
defendatzeko

**greba
orokorra**
antolatu behar da!

- 
- 
- 2. Editoriala: Euskal Herria, Autodeterminazio eskubidearen eta sozialismoaren alde
 - 4. Inperialismoak eta eskuinak Venezuela isolatu eta ekonomikoki ito nahi dute
 - 6. Askatasuna
 - Altsasuko gazteentzat! • 7. Nahikoa da! Eraso matxistarik ez herriko jaietan! • 8. Kataluniako
 - herriak erabakitzeko eskubidea dauka! • 12. Industriaren eta kalitatezko lanpostu finko eta duinen
 - defentsan, borroka guztien batasuna! • 16. Errusiako Iraultzaz geroztik, 100 urtera

EAJ PPrekin aliatzen da Ezker Abertzaleari gutxiengoan akordio bat eskatzen dion bitartean

Mobilizazioa indartu kalean eskuina instituzioetatik botatzeko!

Autodeterminazio eskubidearen eta sozialismoaren alde!

Urriaren 1eko erreferendumak agerian utzi du EAJk eta euskal burgesiak auzi nazionalaren inguruan duten diskurtsoaren hipokresia guztia. Aurrekontuen itunarekin EAJ Rajoyren gobernuaren ezinbesteko aliatu bilakatu da, eta behar zuen egonkortasun guztia eskaini dio, langile klasearen eta eskubide demokratikoen aurkako beste erasoen artean, Kataluniako erreferenduma eragozteko kanpaina errepresiboa martxan jar dezan.

Gauzak horrela, errealtatea ez dator bat inondik ere Ortuzarrek kurtso politikoa irekitzeko mitinean zinismo guztiz esan zuenarekin: “Herritarrak galdeketara deitu ahal izateko, instituzio kataluniarrek duten legitimitatean sinesten dugu”. Fede handia behar da hori sinesteko. Deklarazio horien jarraian, ordea, Josu Erkoreka ateratzen bere kideak gustura uzteko, eta halaxe esan zuen: “Kataluniako Parlamentuak legeak onartzeko ebatzitako prozedurak (...) ez direla bereziki eredugarriak”.

EAJ bide guztietatik saiatu da PPrekin egin duen itunaren benetako izaera ezkutatzeko. Transakzio huts baten gisara saltzen saiatu da, Madrilgo gobernuarekin negozio harreman sinple bat izango balitz bezala, EAErako diru gehiago lortzeko, beste ezertan konprometitu gabe. Halere, benetan itun horrek ezkutatzeko duena burgesiaren aliantza naturala da sistema kapitalistaren eta bere instituzioen egonkortasuna nola edo ahala mantentzeko eta beren pribilegioak bermatuko dituen aurrekontuen legea erreskatatzeko. Alde

horretatik, PSOEn izandako Susana Diazen zuzendaritza kolpistaren aurkako erreboltak PP babesgabe utzi zuen Parlamentuan, eta EAJ bizkor joan da bera salbatzera. Eta hori egiten zuen, hain zuzen ere PP ustelkeria kasuez leporaino zegoenean, eta EAJk Gipuzkoako erraustegiko obrak martxan jartzen zituenean eta Gasteizen Errekaleor auzoa desalojatzeko saiatzen ari zenean.

Ez da harritzekoa burgesia espainiarrak, kataluniarrek eta euskaldunak eta beren komunikabideek hainbeste txalotu izana EAJren “jarrera arduratsua”. Eusko Jaurlaritzak uda igaro du harro esanaz “PPrekin aurrea eramaten ari den negoziazioa onura ukaezinak ematen ari dela”. Onura eta irabazi ukaezinak EAJ kide duen euskal aberatsen elitea geroz eta gehiago aberasten jarraitzeko, laguntza sozialak murrizten eta pribatizatzen jarraitu dezan. Propagandaren atzean, Urkulluren administrazioak ez du inolako asmorik agertu zentimo bat bera ere euskal langile klasearen bizi baldintzak hobetzera bideratzeko, ezta osasungintza eta hezkuntza publikoko langileen aldarrikapenak entzuteko ere. Bere asmoak argiak dira, eta AHT eraikitzen ari diren enpresa handiak urrezko egitera edo Euskal Herriko kaleetan ertzain gehiago jartzera bideratuta doaz diru publikoak, kaleko protesta guztiak hobe kiango erreprimitzeko.

Senatuan bozeramaile den Jokin Bildarratzek PPren gastu-zoruari eman zioten babesa baieztatu ondoren, oso argi esan zuen: “Bide hau

sakondu nahi dugu eta, 2018ko aurrekontuak babestuko bagenu, guretzat seinale ona litzateke, bultzada garrantzitsua izango bailitzake gure euskal agendarentzat”. Gobernu zentralarekin azken ituna itxi ostean, Erkorekak harro zioen 15 urteko bake fiskala lortu zutela. EAJ bere ustezko abilezia negoziatzaileari eta autogobernuaren garaipenari ahalik eta propaganda gehien egin nahian dabil, PPrekin duen ezkontzako lotsak ezkutatzeko. Hainbat alditan esan du bere asmoa Euskadira osasungintzaren kudeaketa ekonomikoko, pentsioetako eta espetxeetako konpetentziak ekartzea dela. Baina errealtatean egin nahi duena, gaur egun osasungintzarekin eta unibertsitatearekin egiten duen bezala, funts pribatuak indartzea da. Hori da finantzazio mixtoko pentsioekin nahiko lukeen eredua, esaterako. Hau da, Euskadira konpetentziak ekartzea, horiek errazago pribatizatzeke.

Burgesia nazionalistarekin behin betiko apurtu behar da, politika antikapitalista irmoa defendatuz

PPri babes osoa ematen ari diren tesuinguru honetan, hainbat jeltzalek lotsa gutxiarekin ezker abertzaleari heltzeko eta arduraz jokatzeko eskatu diote, kolaborazioa eta gutxieneko akordiotara iristea proposatuz. Inolako konplexurik gabe, EAJk beste behin ezker abertzalea bere sokan lotu nahi du promesa hutsen truke, bere diskurtsora egokitu dadin eta ez dezan inolako oposiziorik egin ez kaleetan ez instituzioetan.



Kataluniako eta Euskal Herriko egoerak argi erakusten du: nazio zapalkuntzarekin nahiz zapalkuntza sozialarekin amaitzeko bide posible bakarra burgesia nazionalistarekin edonolako aliantza egitearekin haustea da, izan EAJ edo PDeCat, eta langile klasearen eta gazteriaren mobilizazioan oinarritzea da bidea. Estatu espainiarra aurrera eramaten ari den gorakada errepresiboa horren adierazle argia da, eskuin euskaldunaren nahiz katalanaren jarrera izaten ari den bezala. Behin betiko amaitu behar dugu euskal burgesiarekin akordioak lortzeko aukeraren ilusioekin, eta klaseko programa sozialista eta internazionalista berreskuratu behar da, autodeterminazioaren eta sozialismoaren alde borrokatzeko.

Arnaldo Otegi, *Publico* egunkari-rako elkarrizketa batean zera zioen: "(...) Kataluniaren eredia ikusita, Estatu espainiarrean proiektu oligarkikoaren oinarriak benetan mintzen dituen prozesu independentistak dira, zeren Espainiaren batasuna da dominazio proiektuaren funtsezko pilarea. Estatu gabeko nazioetan prozesu eratzaleak eraikitzeak gai bazara, prozesu antikapitalista posible handiena egiten ari zara".

Espainiaren batasuna betidanik izan da burgesia espainiarraren izpiritu bereizgarria, eta egun 78ko erre-

gimenak Estatu aparatu frankistari jarraikortasuna eman zion, berniz demokratiko batekin. Baina maila guztietan langile klaseak, gazte-riak eta herri sektoreek jasaten dugun zapalkuntzaren funtsezko pilarea, izan Euskal Herrian, Katalunian eta gainontzeko munduko herrialdeetan, hain zuzen ere ekoizpen baliabideen jabetza pribatuan oinarritzen den sistema bera da. Elite ekonomikoaren %1a da, enpresari handiak eta bankariak, berdin dio nongoak diren eta zein hizkuntza hitz egiten duten; inork ez ditu bozkatu ez hautatu, baina burdinazko ukabilez inposatzen ari dira murrizketa eta austeritate politikak, eta politika errepresibo basatiak aplikatzen dituzte gure eskubide sozialen eta demokratikoen aurka. Haiek dute benetako boterea, eta ez Estatuaren instituzioek, horien interesei erantzun besterik ez baitiete egiten. Botere horrekin hautsi ezean, ez dugu inoiz autodeterminazio eskubidea lortuko.

Independentziara joango den prozesu konstituziogile bat eratze-ko asmoekin justifikaturiko klase kolaborazio politika, praktikan langile klaseari inolako alternatiba bat eskaintzeari uko egitea da eta eskuak lotuta burgesiaren interesen menpe entregatzea, izan hori euskalduna edo katalana.

Hain zuzen ere, horren adibide ona Katalunia bera dugu. *Junts pel Si*-ren Governak PPren murrizketa eta errepresio politika kapitalista berberak aplikatu ditu. Eta soilik azpitik jaso duen presioak behartu du azkenean PDeCat nahi ez zuten erreferendum bat aurrera eramatea. Murrizketen aurkako borrokaren bandera eta PP eta Estatu espainiarra eskubide demokratiko nazionalen aurka eramaten ari diren errepresio ofentsibaren aurkako bandera bere egin dituen masa mugimendu bat izan da horretara behartu duena, herri kataluniarren erabakitze eskubidea bermatu nahian.

Euskal gehiengo sindikalak aurkeztu duen *Alde bakarreko burujabetza prozesu sozial baten alde* dokumentuan, LAB eta ELAk aurrera pauso oso garrantzitsu bat adierazi dezaketen ideiak planteatzen dituzte. Hartzen dituzten konpromisoetan zera diote: "Ezkerreko aliantzak sustatu eta elkarlanean aritu. Horretarako, beharrezkoa da ezker politikoa agenda soziala lehenestea agenda soberanistaren oinarri gisa." Hain zuzen ere, masen mobilizazioaren bidez eskuina instituzioetatik botako duen ezkerreko fronte bat eratzea, langileen aldarrikapenetan oinarrituriko programa eta erabakitze eskubidea defendatuz, hori da lehen urratsa.

Inperialismoak eta eskuinak Venezuela isolatu eta ekonomikoki ito nahi dute

Irabazteko modu bakarra langileek boterea hartzea da, programa sozialista eta antiburokratiko batekin

WILLIAM SANABRIA
*Izquierda Revolucionaria
Venezuela*

Pasa den uztailaren 30ean, Batzar Konstituziogilerako Asanbladarako (ANC) hauteskundeak izan ziren Venezuelan, eta Estatu Batuetako inperialismoak eta MUD alderdian antolatutako eskuinak eta ultraeskuinak saihesteko ahalegin guztiak egin arren, hauteskunde horiek fase berri batean sartu dute klase arteko borroka.

Masen ekimenak eskuinaren asmo kolpistak geldiarazi ditu, momentuz

MUD alderdiak uko egin zion hauteskundeetan parte hartzeari eta, gainera, kanpaina eta hauteskunde egunean kaleko indarkeria eta terrorismoa indartu zuen; ofentsiba horrek martxoaz geroztik 100 hildako baino gehiago eragin ditu. Mundu osoko komunikabide burgesek “Maduroren diktadura totalitarioarekin haserre dauden gazteen protesta baketsuak” balira bezala aurkezten dituzte, baina eraso planifikatuak dira, eta ez dira batere baketsuak: molotov cocktailak, granadak eta su-bonbak jaurti dituzte lantokien eta eraikin publikoen aurka; pertsona asko lintxatu eta bizirik erretzen saiatu dira chavistak edo ezkertiarrek zirelakoan edo eskuinaren ekimenetan parte hartzearen aurka agertzeagatik. Eraso terrorista horiek guztiak ultraeskuineko taldeek eta mertzenario lanak egiteko kontratatutako gaizkile taldeek egindakoak izan dira.

Hauteskunde egunean, talde faxista horiek hautets-leku batzuk suntsi-



tu zituzten, beste batzuetan sarbidea oztopatu zuten eta MUDek kontrolatzen duen eremuetan, bozka ematen zutenen aurkako neurriak hartuko zituztela mehatxatu zuten. Era berean, gobernu inperialistek eta inperialismoaren aldekoek iragarri zuten ez zutela ANC onartuko eta zigorrak jarriko zizkiotela. Donald Trumpek errepresaliek mehatxu egiteaz gain, baieztatu zuen ez duela baztertzeko “indar militarra erabiltzea”, ezta beste bide batzuk erabiltzea ere, besteak beste, Kubak azken hamarkadetan jasan duenaren antzeko blokeo ekonomikoa.

Eraso horien berehalako helburua Batzar Konstituziogilea sor dadin eragoztekoa izan da, baina helburu nagusia kupula militarrean zuloa eragitea da, estatu kolpea errazte aldera, gobernu bolivartarra garaitzeko

eta MUDen gobernu osatu eta Temerrek Brasilen eta Macrikin Argentinan egin dituzten antzeko politikak aplikatzeko. Halere, ofentsiba kontrairaultzaileak aurkako eragina izan du. Milioika pertsonak, baita gobernuaren neurriekin haserre eta egoe-ekonomikoagatik etsituta dauden askok ere, mobilizatu eta bozkatu zuten, inperialismoaren eta eskuinaren planak desafiatuz.

MUDek uztailaren 26an eta 27an kaleak hartzeko eta hauteskundeak saihesteko antolatu zuen greba orokorrak porrot egin ondoren, alderdiko agintari gehienek momentuz indarkeria alde batera uzteko eskatu dute, eta abendurako aurreikusia zegoen baina urrira aurreratu duten gobernadoreak aukeratzeko hauteskundeetan parte hartzeko deia egin dute. Horrek ez du esan nahi, ordea, garai-

tuak izan direnik, PSUVeko agintari batzuek eta gobernuak esan duten bezala. Beren planak atzeratu dituzte, ez besterik.

Inperialismoa eta eskuina neurri sozialistekin garaitzen dira, ez neurri kapitalista eta burokratikoekin

MUDEk eta imperialismoak ez dute ANC onartzen, eta Venezuela diktaturatzat hartzen jarraitzen dute. Beren taktika, orain, herrialdea ekonomikoki itotzea da, Trumpek proposatutako neurri berberekin: jarduera ekonomikoak AEBn dituzten herritarrei eta enpresei debekatzea Venezuelako estatuaren eta PDVSA estatuko petrolio enpresaren zorra 90 egun baino gehiagorako. Horrekin Venezuelen finantza krisia eragin nahi dute, elikagai krisia areagotzeko eta haserre, arpilaketak eta desorekak eragiteko langileen eta herritar xumeen auzoetan, eskuinak indarkeria ekintzekin sartzetik lortu ez duten eremuetan, alegia.

2012az geroztik, Venezuelako esportazioen balioa ikaragarri murriztu da, petrolioaren prezioaren beherrakadaren poderioz. Era berean, dibisen erreserba erori da, eta Estatuaren zorra igo. Halere, burgesiaren akordioak lortzeko eta kapitalismoaren krisia MUDEk baino hobeto gestiona dezaketela erakutsi nahi duten politiken ondorioz, Maduroren gobernuak lehentasuna eman dio zorraren interesak puntualtasunez ordaintzeari, nahiz eta horrek elikagaien inportazioa murriztu eta hornigai faltaren arazoa areagotzen duen. Inportazioak %76 murriztu dira. Errenta per capita %34 erori da, eta nekazaritza sektorean, industrian eta zerbitzuetan kontratazioak %30 eta %40 erori dira.

Ekonomiaren itoaldia saihesteko, neurri sozialistak hartu behar dira: banka eta enpresa handiak nazionalizatzea (onura ikaragarriak dituzte gobernuak emandako dibisekin espekulatzen) eta estatuak bere egitea esportazioen eta inportazioen monopolioa (kanpo merkataritza). Horrek soilik funtzionatuko luke, baldin eta ekonomian eta Estatuan langileen eta herritarren zuzeneko kontrol eta gestio demokratikoa badago, eta ez, orain bezala, burokraten eta enpresarien esku badago.

Gertatuak gertatu, gobernuaren politika kontrako bidetik doa. Enpresariei kontzesioak egiten eta “gune ekonomiko berezien” eta “enpresa mixtoen” garapenarekin jarraitu nahi du, Estatu kapitalismoaren erregimena sendotzeko. Horrek langile klaseak eta herritarrek Chavezen gobernuarekin lortutakoa suntsitzea eta langileen eta oinarri bolivartarraren aurkako erasoak dakartza.

Benetako programa sozialista duen ezkerreko korronte chavisten fronte bakarraren alde!

ANCrako hauteskundeetan, lehen aldiz, chavismoaren oinarriko milaka eta milaka ekintzaile eta militante mobilizatu ziren eskuinaren aurka, baina, aldi berean, gobernuak kritikatuz eta burokraziaren aurkako haserrearekin adieraziz. Kanpainan 54.000 aurre-hautagai alternatibo aurkeztu ziren PSUVren zuzendaritzarako. Alderdiko zuzendaritzak, ordea, era guztietako trikimailuak erabili eta asko baztertu zituen, baina Caracasen eta beste hiri handi batzuetan, eskualde eta sektore garrantzitsuetan 8 edo 9 hautagai zerrenda alternatibo zeuden.

Estimazio batzuen arabera, eta nahiz eta hautagai askok jasotako botoen berririk ez den argitaratu, Caracasen zerrenda kritikoei 300.000 boto lortu zituen, eta ofizialak 400.000. Burokraziaren trikimailuak eta presioak eta sektore kritikoen ekintza eta koordinazio faltak oztopatu zuten ANCrako oinarriko hautagaien

zerrenden ikusgarritasun handiagoa. Hautagaitza horiek iraultza bolivartarra defendatu baina gobernuarekin kritiko diren alderdiek osatu zituzten: PCV, PPT eta REDES, zuzendaritzarekin haserre dauden PSUVeko militante eta agintariak, lantokietako eta auzoetako prozesu asanblearioetatik sortutako hautagaitzak, bizilagun elkarteak, maizterren mugimenduak, talde feministak, ekologistak, LGTBI mugimendua, “chavismo bravo” deritzona, etab.

Zenbait hautagaitza kritikok salatu dute herritarrek jasaten dituzten arazo larriak konpontzeko eta oinarria mobilizatzeko zerrenda alternatiboak baliatu beharrean, burokraziak baliabide publikoak eta metodo onartezinak erabili dituela, hala nola funtzionario publikoen edo plan sozialen onuradunen aurkako kaleratze mehatxuak burokraziaren zerrendaren alde bozka zezaten. Metodo horiek eskuinari egiten diote mesede. Eskuinak indarra har ez dezan eta berriro ofentsibara pasatu ez dadin, chavismoaren barneko korronteak programa sozialista eta antiburokratiko baten inguruan elkartzea beharrezkoa da, boterea langileen eta herritarren esku jartzeko, kapitalistak desjabetzeko, burokrazia garaitzeko eta pobreziaren, desberdintasunen eta ustelkeriaren izurritea bukatzeko. Halako programa batek konfiantza handia emango lieke zapalduen, eta Venezuelako iraultzarenganako nazioarteko elkartasuna berrituko luke, imperialismoaren eta eskuinaren ofentsibaren aurka.



Askatasuna Altsasuko gazteentzat!

Muntaia mediatiko
eta polizialik ez!

MIGUEL MITXITORENA
Iruñea

Oihan, Jokin eta Adurren egoera geroz eta latzagoa da. Epaileek espetxean mantentzen dituzte terrorismoz akusatuturik, orain dela ia urte bat Altsasuko taberna batean goizeko bostetan Guardia Zibilekin izan zuten tirabirak direla eta. Muntaia judizial eta mediatikoa handitzen joan zenetik eta Lamela epaileak terrorismoz salatu zituenetik, bizilagunen eta herritarren mobilizazio mordoak egin dira Altsasun, Sakanan eta Euskal Herri guztian. Azkenak, Euskal Herri guztiko jaiekin bat egin dutenak izan dira, Iruñeakoa kasu. Sanferminetako kontzentrazioa zigor eskaria ezagutu eta egun gutxira egin zen; kartzela zigorreko 375 urte, 50 horietako seirentzat, 62 eta erdi Oihanentzat eta 12 eta erdi Ainararentzat izaera terroristakoa mehatxuengatik.

Uztailaren 14an 10.000 pertsona inguruk Gaztelu Plaza bete genuen basakeria horren aurka protestatzeko; epaile gehienak ere ez daude ados zigor eskaera horrekin. Kontzentrazioaren buruan atxilotuen familia eta lagunak zituztela *Altsasu askatu* edo *Utzi bakean Nafarroa* izan ziren gehien oihukatu ziren aldarrikapenak. Kontzentrazioaren ondoren, auziperatuen babeserako plataformak komunikatua irakurri zuen, euskaraz eta gazteleraz, gazteria zapaltzeko eta erabat legitimoak diren aldarrikapenak kriminalizatu eta isiltzeko, zorizko gertakari bat aprobetxatu nahi duen muntaia politiko, mediatiko eta judiziala salatzen; Estatuko in-

dar polizialen presentzia Nafarroatik kanporatzearen alde dauden *Alde Hemendik* eta *Os- pa* mugimenduari erreferentzia egin zioten.

“Ez da lehen aldia horrelako zerbait egiten dutena, baina oraingoan asko pasa dituzte mugak eta beren aurka itzultzen ari” dela defendatu zuten, eta gehitu zuten geroz eta pertsona gehiago direla basakeria horren aurka oihukatzen dutenak. Plataformako kideek, halaber, gogorarazi zuten aurki tokatu zaiela tragedia zital honen hurrengo atalari aurre egitea: epaiketa. Horregatik mezua helarazi nahi izan zioten inputatuei nahiz Auzitegi Nazionalari.

Mobilizazioa indartu errepresio legeen aurka

Epaiketara begira, mobilizazioa indartu egingo da, nahiz eta, noski, ez daki- gun noiz izango den. Barne arazoetako Ministerioak erantzun du EHBilduko senatari den Ion Iñarririk aspaldi egin zuen galderari. Erantzun horretan azaltzen da 2016an Altsasuko antzeko 9.571 kasu egon zirela, nahiz eta Ministerioak ez duen erantzuten lesioen inguruan. Bai, ordea, probintzietako sailkapen bat. Alde horretatik, hego Euskal Herria ez da Estatuaren Segurtasun Indarren aurkako eraso gehien dituen tokia. Konkretuki, 59 izan ziren Nafarroan; gutxiago dira, esate baterako, Errioxarekin alderatuz -64- edo Albaceteko 75ekin, Bur-

goseko 77rekin, etab. Horiek biztanle gutxiago izan arren.

Tirabira hau terrorismotzat katalogatu dute, besteak ez. Argi dago abisu bat bidali nahi dutela, ez soilik Euskal Herrian, baita estatu mailan ere. Altsasuko muntaia ezin da banandu PPK gobernuan dagoenetik eskubide demokratikoen aurka bultzatu duen gorakada errepresibo guztitik. Burgesia prestatzen ari da gorantza datorren erantzun sozialeko garaiei aurrean eta ez du aukerarik galtzen bere eskura dauden mekanismo errepresibo guztiak zorrozteko edota arre- ta soziala “terrorismo” kasuetara bideratzeko, “denok” baturik egon behar dugula esanez.

Ezker Iraultzailekook Altsasuko muntaia salatzen dugu, atxilotuak berehala aske uzteko eta terrorismo karguak alde batera uzteko exijitzen dugu. Aldi berean, Mozal Legearen indargabetzea eta atzera botatzea Kode Penalean txertaturiko aldaketa guztiak exijitzen dugu. Errepresioaren aurkako borroka mobilizazio orokorrera batu behar da, kentzen ari diren eskubide demokratikoak, sozialak eta lan eskubideak berreskuratzen.



Nahikoa da!



NICOLE JAIMES

Urtez urte, gure herriko jaiak zikindurik geratzen dira eraso matxisten ondorioz. Uda honetan gertatutako erasoen zerrenda, beste behin, oso luzea da: Iruñea, Zornotza, Gasteiz, Donostia, Lekeitio, Bilbo eta abar. Ez dira kasu isolatuak. Egunez egun emakumeok bizi dugun zapalkuntza islatzen duen minbizia da, kapitalismoak inposatzen duen kirkenteriazko aisialdi ereduaren eta instituzioen pasibotasunaren ondorio zuzena.

Beste udal askok bezala, Bilbokoak ere “EZ beti da EZ” irakur zitekeen kartel bat zeukan kanpaina iragarri zuen, publikoki bere Aste Nagusia den bitartean benetan eraso hauen aurka borrokatzen duen udal baten gisa agertu asmoz. Baina ongi ezagutzen dugu EAJren hipokresia. Ez zuen denbora asko behar izan Aburtok “gu guztiak lasaitzeko” bi adingabekoren aurkako eraso zurrumurrua gezurtatzen ateratzeko, Ertzaintzak ez zuelako inolako salaketarik jaso. Tontotzat hartzen gaituzte, ala? Ongi dakigu zein konplikatua den biktimabatentzat salatzea, eta, pausoa ematekotan esposizio publikoa jasa behar izatea, seguraski erasotzaileak ez due-

nean zigorrak jasoko. Gainera, Aburtok berak esan zuen “lehenengoa izango litzakeela aurpegia ematen”. Badakigu erabat faltsua dela, eta “Ez beti da ez” lelodun kartel asko jarriagatik, erasoak eta indarkeria matxista sufritzen duten emakumeentzat erabateko inpunitatea dagoela Justiziarren eta instituzioen aldetik. EAJk ez genuela arduratu behar eta festan jarraitzeko mezua zabaldu nahi zuen, guretzat benetako arazoa ez balitz bezala. Zein urrun dagoen errealitatetik.

Aldiz, beste emakume baten salaketa egon zenean eta hori konpartsek deitutako mobilizazioarekin erantzun zenean, kondenatzeko kontzentrazio batekin eta gau erdian kazerolada batekin, EAJren udalak guztiz aparte egon nahi izan zuen. EAJk beti egiten dio ihes mobilizazio sozialari higuinez. Badakite emakumeok egunero jasaten dugun biolentzia, besteak beste, berea bezalako alderdiek defendatzen duten politiketan oinarritzen dela: laguntza eta zerbitzu sozialetan, esaterako gaixoen zaintzan, osasungintzan eta hezkuntza publikoan aplikatzen dituzten murrizketetan, ardurara, dohainik, gure bizkarren gainean ezarritik. Jazartzen gaituzten lan prekarietatean oinarritzen dira, baita as-

kotan ekonomikoki menpekoak izatera behartzen gaituzten moduan ere, gure aurkako biolentziarako testuingurua elikatuz. Hori guztia EAJri zenbat axola zaion erakusten duen adibide on bat Diru-laguntzak Bermatzeko Erretaren aurkako jazarpen kanpaina da, eta etxeko laguntza bakarra eskatu ahal izateko neurri berria. Non daude emakumeontzako EAJren laguntza ekonomiko eta sozialak, indarkeriazko egoera betetik ihes egiteko eta loturik gaituzten egoera desesperatuak gainditzeko? Inon ez, ez dira existitzen. Argazkia ateratzea bakarrik interesatzen zaie, gero justiziak inpunitatea emateko erasotzaileei eta mezu argia emateko: emakumeak eraso daitezke eta ez da ezer gertatzen, ez dago ondoriorik.

Alderdietako bozeramaleak festen inguruan balantze positibo bat emateko lerrokatu dira. Zer gezurra! Antolakuntzaren eta kaleko borrokaren bidea jarraitu behar dugu. Ez gara geldituko erasorik txikienaren jazarpenarekin amaitu arte. Biolentzia matxistaren aurka borrokatzeko, hori eragiten duen sistemaren aurka borrokatu behar dugu, baita EAJ bezala, sistema bidegabe hau defendatzen duten alderdi guztien aurka ere.

KATALUNIAko herriak ERABAKITZEKO ESKUBIDEA *dankar!*

PPREN **OFENTSIBA FRANKISTA KATALUNIAN**

ERREPRESIOA GARAITZEKO
ETA **ESKUBIDE DEMOKRATIKOAK**
DEFENDATZEKO:

GREBA OROKORRA
ANTOLATU BEHAR DA!



ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Kataluniako herriak duen erabakitze eskubidea eragozteko, PPren gobernuak errepresio masiboa erabiltzea erabaki du, eskubide demokratikoak gogor zapaldu dituen errukirik gabeko ofentsiba polizial eta judizialaren baitan. Diktadura frankista gogora ekartzen duen operazio batean, Guardia Zibilak urriaren 1eko erreferendum antolatzen parte hartu duten Generalitateko 14 kargu atxilotu ditu. Ekintza autoritario horren berri izan eta berehala, milaka gazte eta langilek hartu genituen Bartzelonako eta beste hainbat hiritako kaleak, errepresioari erantzuna emateko eta Kataluniako herriaren askatasuna eta erabakitze eskubidea defendatzeko.

Inprentetan eta egoitzetan indarrez sartu eta propaganda ebastea, zentsura informatibo masiboa inposatzea, kartelak jartzeagatik gazteak atxilotzea, ehunka alkate kartzela zigorrak mehatxatzea, Governaren egoitzak erregistratzea eta CUPen egoitzara indarrez sartzeko saiakerak, erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak debekatzea Madrilen, Gasteizen, Gijonen, Generalitatearen finantzetan eskua sartzea Gobernu zentralak, milaka polizia bidaltzea Kataluniara herritarrak izutzeko eta *de facto* salbuespen egoera indarrean jartzea... hori da PPK, estatu aparatua, Ciudadanos alderdiak eta PSOEko zuzendaritzak duen erregeta; Kataluniako herriak Estatu espainiarrarekin izan nahi duen harremanaz eta independentziarako eskubideaz erabakitze duen bozkatze eskubidea urratu nahi dute.

**Eskubideen eta askatasunaren
aurkako aurrekaririk gabeko
erasoa**

Ofentsiba poliziala aurretiaz prestatua zuen gobernuak. Hori dela eta, irailaren 20ko lehen orduetan, Rajoy Pedro Sanchezekin bildu zen Moncloan, eta ondoren Albert Riverarekin. Lotsagarria da PSOEko agintariek Kataluniako herriaren aurkako ofentsiba frankista hau defendatu izana!

PPk Kataluniako herria zapaltzeko eta urriaren 1ean bozkatzea debekatzeko PSOEko agintariek emandako laguntza sozialdemokraziaren historiko orrialde ilunetara pasatuko da. Ho-



riek dira urte luzez nazionalismo espainolista besarkatzearen eta oinarritzko gaitan klase agintariarekin fusioatzearen emaitzak. Auzi nazionalarekiko sozialismoak duen ikuspuntua (beti defendatu du nazio zapalduen autodeterminazio eskubidea) galtzeaz gain, PSOEko agintariek, erretrorikoki, “negoziarako” deia egiten badute ere, praktikan frankisten ondoan daude: Katalunia nazioa dela ukatzen dute eta prest daude beste “gurutzada” bat abian jartzeko eta, horretarako, indarkeria eta estatuaren errepresioa erabiltzeko.

Uleko erreferendum Kataluniako sektore baten aurkako “estatu kolpea” eta inposizio “antidemokratikoa” delako idea komunikabideek burgesia espainiarrari mesede egiteko saldu nahi duten inoizko gezurrik handiena da. Gainera, absurdoa da. Estatua, PP eta bere menpeko alderdiak horren ziur badaude independentistak gutxi batzuk direla, zergatik ez dute onartzen hautets-ontziak jar ditzaten? Zergatik eragotzi bozkatzea? Zergatik Venezuela bai eta Katalunian ez?

Autodeterminaziorako bozketa demokratiko batean, independentzia babesten ez duen orok du ezezkoa bozkatzeko aukera edota ez bozkatzeko aukera. 78ko erregimena babesten duten PPK, Cs edo PSOE baliabide mordoa eta eragin zabala dute beren argumentuen aldeko eta independen-

tziaren aurkako kanpaina egiteko. Hori dela eta, eskuinaren eta Estatuaren jarrera baldar hori ez da demokrazia babesteko, guztiz kontrakoa: Kataluniako herria nazioa dela eta erabakitze eskubidea duela ukatzen dute. Jarra hori burgesia espainiarrak eta bere estatu zentralistak historikoki izan duen jarrera berbera da, *manu militari* zapaldu ditu Kataluniaren, Euskal Herriaren eta Galiziaren aldarrikapen demokratiko-nazionalak. Hori gertatu zen diktadura frankistaren garaian, eta Trantsizioaz geroztik lortu diren eskubidea guztiak mobilizazio masiboen ondorio izan dira.

Kontseilariz inguraturiko prentsaurreko batean, Carles Puigdemont Generalitateko presidentek honela azaldu du egoera: “Estatu espainiarrak *de facto* indargabetu du Kataluniaren autogobernua, eta salbuespen egoera ezarri.” Sinestezina da alderdi nazionalista burges bateko agintari batek horrela hitz egitea. Hara, noraino heldu den PP oinarritzko eskubide demokratikoak zapaltzen! Ora in argi ikusten da Rajoyren alderdiak zergatik ez duen inoiz diktadura frankista gaitzetsi, eta argi ikus daiteke marxistok beti defendatu duguna: estatu aparatua elementu faxistez eta atzerakoiez josia dago, eta Trantsizio deituriko horretan ez zen depuraziorik eman, babestu eta adorea eman zitzaien.

Hain zuzen ere, Katalunian ikusi duguna Estatutaren eta Governaren indargabetzea izan da; horrela beren funtzio politiko nagusiak ezerezean geratu dira. Pozik daude PP eta bere aliatuak, burgesia espainiarraren komunikabideen laguntzarekin: azkenean legea eta zuzenbide estatua bete dira, eta “demokrazia” nagusitu da. Demokrazia zer den erakutsi nahi digu ustelkeria kasuz bete dagoen alderdiak, hezkuntzan eta osasunean murrizketa basatiak egin dituen alderdiak, bankariei 100.000 milioi euro oparitu dizkien alderdiak, etxetik kaleratzen gaituen alderdiak, prekarrietatera eta soldata baxuetara kondenatu gaituen alderdiak, Maroko eta Saudi Arabiako erregimenak babesten dituen alderdiak, inperialismoaren esku hartze militarrek babesten dituen alderdiak.

**Langile klasearen eta gazteriaren mobilizazio masibo batekin erantzun behar da:
Greba Orokorra!**

Herri katalanak kalean tinko eta irmoki erantzun dio ofentsiba frankista honi, eta erantzun eredugarri hori haziz doa egunez egun. Dena den, beharrezkoa da langile klasea borroka horretara batzea, eta gazteekin eta geruza ertainekin batera mobilizatzea. Era berean, nahitaezkoa da Kataluniatik kanpo ere erantzuna indartzea; izan

ere, eskubide demokratikoen aurkako eraso hori estatu osoko biztanleen eta, batez ere, langileen, gazteen eta beren erakunde borrokalarien aurkako mehatxu ikaragarria da.

Esquerra Revolucionariak erabateko babesa ematen die Kataluniako eta estatu osoko mobilizazio horiei, baina Gobernu zentralaren eraso autoritarioa menderatu nahi badugu, beharrezkoa da borrokatzen duen ezkerrek, gizarte mugimenduek eta klaseko sindikatuek (CUP, ERC, Catalunya en Comú, Intesindical, CCOO, UGT, CGT...) erantzun ahalik eta indartsuena antolatzen hastea, eta hori Kataluniako bizi ekonomiko eta soziala 24 orduz geldituko duen greba orokorra antolatuta lor daiteke.

Kataluniako greba orokorrak lotuta egon behar du herri katalanaren eta bere eskubide demokratikoen alde, estatu osoko gazte eta langileen mobilizazio deialdiekin. Gainera, inflexio puntu bat izan behar du borrokatzen duen ezkerrek prozesuaren gidaritzaz hartzeko eta autodeterminazio eskubidearen defentsa murrizketa sozialen aurkako programarekin uztartzeko. Ezaugarri horiek lituzkeen mobilizazioa litza-teke PP eta bere politika frankistak garaitzeko eta Kataluniako Gubernetik eskuin katalanista kanporatzeko bide eraginkorrena.

Ekintzak aurrera jarraitu behar du, antolatuago, indartsuago eta za-

balago. Catalunyan Sindicat d'Estudiantsek gazteriaren borroka indartzeko erabakitze eskubidearen alde eta errepresioaren aurka komiteak sortzea proposatu du ikastetxe guztietan. Horrekin batera, asanbladak, mobilizazioak eta ekintzak antolatzeaz gain, borroka elkartuko duen ikasle Greba Orokorra deitu dute Irailaren 28rako. Ikasle Sindikatua Euskal Herritik greba deialdi horretara batu da eta Ernaien mobilizazioetara dei egin du. Estatu mailan ere, erabakitzeo eskubidearen aldeko komiteak eta mobilizazioak antolatuko dira kale eta ikastetxeetan Sindicato de Estudiantesen eskutik. Elkartasun hori eta hitzetatik ekintzetara pasatzea da biera.

Errepublikan sozialista katalanaren alde

Katalunian dagoen haserrearen Estatu, PP eta bere politika kapitalistak garaituko dituen benetako errebolta sozial batean bihurtzea eragotzi duen arrazoi nagusia da sozialdemokraziaren ezkerretara dauden formazio parlamentarioek (CUP, Podemos, Catalunya En Comú, Izquierda Unida) eta sindikatuek uko egin izana masen mugimendu indartsu baten buruan jartzeari, autodeterminazio eskubidea langile klaseak, gazteek eta sektore xumeek dituzten aldarrikapen ekonomikoekin eta sozialekin uztartuko duen programa batekin.



Estatuaren eta PPren aurkako borrokaaren zuzendaritza formala PDeCATen esku utzi da, eta politikari burges horiei eskuin españolistaren biktima bakartzat agertzeko aukera eman zaie. Horren ondorioz, zatiketa negatiboa egon da langile klasearen barruan. PDeCAT alderdia “Procésako” gidari izateak ez du mugimendua indartzen CUPEko eta ERCko agintariek dioten bezala, ahuldu baizik. Eskubide nazionalen defentsaren ikuspegitik begiratu gero, PDeCATeko agintariek aitzakia asko bilatu izan dituzte erreferendumerako deialdia ez egiteko. Azkenik, mugimenduaren presioaren poderioz eta hauteskundeak galduko zituzten beldur (barne zatiketen ondorioz), data jarri behar izan zuten.

Erreakzioaren asmoak eta komunikabideetan jaurtikitako gertakarien manipulazio higuin garria gorabehera, errealitatea bestelakoa da: A9ko galdeketa bozkatu ez zuten edo Diadan parte hartu ez zuten milioika gazte eta langilek ez dute erabakitze eskubidearen aurkako jarrerarik. Horietako gehienak PPK ordezkatzen duen guztiaren aurka mobilizatu dira: murrizketak, etxe kaleratzeak, ustelkeria... Erreferendumagatik orain arte gauza bera egin ez badute, “Procésaren” gidaritza Puigdemonten eta Masen esku dagoelako izan da, Palau kasuko eta % 3aren ustelkeria trama berdinak.

Hala ere, hori guztia alda daiteke. Zalantzarik gabe, PPren errepresioak gogor astindu ditu Katalunia osoko langile auzoetako milioika langile eta gazte. Guardia Zibilen atxilotetak eta Rajoy neurri errepresiboengatik harro egoteak Kataluniako eta kanpoko milioika pertsonen kontzientzia eragiten ari dira, frankismo garaiko belarrialdiek bizitutako errepresio bera baita. Ezin ahaztu dezakegu gaur egun ditugun eskubide demokratikoak, baita Estatut-a eta Generalitat-a Kataluniako langileen borroka masiboari esker lortu zirela; horietako asko Bartzelonako eta beste hirietako gerriko gorrian bizi ziren etorkinak izan ziren.

Oraintxe bertan baldintza bikainak daude mobilizatzen eta kalean erreferenduma babesten ari diren milioika pertsonak errepresioaren aurka borrokatu nahi duten baina PDeCATez fio ez direnekin batzeko. Estatuko eta Kataluniako ezkerreko agintariek eta klaseko sindikatuak greba orokorrerako deia egin eta langile klasea



eta sektore xumeak erabakitze eskubidearen alde eta PPren eta estatuaren errepresioaren aurka mobilizatu horko balituzte, Katalunian bertan eta horko kanpo, PDeCATenagandik bereiziz —CUPEk berehala egin behar luke hori, eskuin katalanistarekin duen ituna hautsiz— eta borroka hori murrizketen aurkako, lanpostu duinen aldeko, osasun eta hezkuntza publikoaren aldeko borrokarekin elkartuko balute, errepresioa garaitzeaz gain, ezkerreko gobernuari eta Kataluniako errepublika sozialistari ateak irekiko litzaizkieke.

Autodeterminazio eskubidea gauzatzeko modu bakarra, Kataluniako biztanle gehienak batzea da, eta lehenik eta behin Kataluniako langile klase indartsua, txanpon beraren bi aldeak uztartuko dituen programa batekin: autodeterminazio eskubidea eta kapitalismoaren aurkako borroka. Burgesia katalanaren eskutik, ezinezkoa da Kataluniaren askapen nazional eta soziala.

Esquerra Revolucionàriatik Kataluniako gazte eta langileei dei egiten diegu PPren eta Estatuaren kolpe autoritario honen aurka eta erabakitze eskubidearen eta Ulean bozkatzearen alde gogor borroka egin dezaten, murrizketarik ez eta lanpostu duinak dituen, etxe kaleratzerik ez duen eta aberastasuna gehiengoaren zerbitzura jartzeko banka eta enpresa handiak nazionalizatuko dituen Kataluniako errepublika sozialistaren alde.

Kataluniako errepublika sozialista horrek estatu osoko eta Europa osoko langileen babesa lortuko luke (etsai berbera baitute, burgesia, eta eraso berberak jasaten baitituzte), eta auke-ira irekiko luke munduko herri zapalduen askapenerako eta gizartearen eraldaketa sozialerako.

**Errepresioaren aurka
eta sozialismoaren alde,
antola zaitez
Esquerra Revolucionàrian!**

La Naval, Fagor CNA Group, Vicrila, CEL, General Electric, Bosch, Ofita, Ingemar, STS-SERT, Muebles Xey... erasopean

Industriaren eta kalitatezko lanpostu finko eta duinen defentsan, borroka guztien batasuna!



ELOY VAL

Uztailean ekonomiaren susperraldiaz hitz egin bazuten ere, krisian dauden enpresen ixte eta kaleratze mehatxuak igo dira: Sestaon La Navalen 215 zuzeneko lanpostu eta 1.800 azpikontrata; Arrasateko, Eskoriatzako eta Basauriko Edesa Industrial enpresan 350 langile; Zumaiako Muebles Xey enpresan 170 langile; Leioako Vicrilan 290; Artziniegako Zallan eta Güeñesen 254 langile, CEL enpresan; Dulantzin 87 langile STS-SERT enpresan; Ortuellako General Electric enpresan 147 langileri eragin die ixte mehatxuak

deslokalizazioagatik; Gasteizko BSH eta Ofita enpresetan 260 eta 76 langile, hurrenez hurren; Usurbilen 72 Ingemar enpresan eta zerrendak ez du etenik. Datu horiek erakusten dutenez, ez dira kasu isolatuak; langile klasearen aurkako ofentsiba orokorren parte dira. Horren aurrean, Euskal Herriko industriaren suntsipena geldiarazteko eta lanpostuak defendatzeko, beharrezkoa da borroka guztiak elkartzea. Euskal Herriak urteak daramatza atzeraldian, eta hori argi erakusten du 2008ko atzeraldi handiaren ondoren 6.000 enpresa desagertu izanak.

Eusko Jaurlaritzak krisian dauden enpresei emandako erantzuna berbera izan da beti: enpresak indarberritzeko aitzakiapean, ia beti soldatak %20 murriztuz, lan orduak igoz eta "mugikortasuna" eta prekarietatea igoaraziz, enpresen kargu egingo diren inbertsore edo kudeatzaile pribatuak bilatzea. Hala ere, esperientziak erakutsi du enpresen kargu egiten diren inbertsiogile eta kudeatzaile horiek benetako putreak direla. Soldata milioiunak dituzte, baina zorraren kitapena negoziatzen dute baliabide guztiak xahutuz, eta denboraren poderioan krisian murgiltzen dira be-

rriro. Etorri bezala joaten dira, eta inork ez die erantzukizunik eskatzen edo laguntza publikotik jaso dutena itzultzeko agintzen, eta ez dute azaltzen enpresak zergatik egin duen porrot berriro. Azkenean, langileak dira guztia ordaintzen dutenak, lana, soldata eta eskubideak galduta.

Sestaoko La Naval duela hamar urte pribatizatu zuten, eta guztiaren adibide garbia da. 2019ra arteko lan karga du, zuzeneko langile kopurua 225ra murriztu du enpresak eta lan prekariodun 1.800 langile azpikontratatu ditu, baina, halere, galerak izan ditu eta bankuekin dituen zorrak igo zaizkio. Lan falta ez bada arazoa, norra joan da diru guztia? Beharrezkoa da kontu-liburuak irekitzeko aldarrikatzea, eta erantzukizunak eskatu behar dira. Era berean, inbertsore pribatuen bilaketak porrot egin du Fagor CNAREN kasuan ere; bertan, ekoizpena bertan behera uzteko plan bat aurkeztu dute, indarrak komertzializazioan eta Fagor markaren erabileran jartzeko, 167 langile kaleratuz.

Eusko Jaurlaritzak eraginkorrak omen diren "ekimen pribatuen" esku utzi ditu industria eta bertako langileak, baina ez dira batere eraginko-

rrak, eta krisian dauden enpresa horiek putreen eskuetan erortzen dira, langileak zukutzen dituzte, enpresak dituen aktibo urriak xahutzen dituzte eta lantokien terrenoekin, bezeroekin eta markarekin negozioak egiten dituzte. Horixe da CELEN kasua: Eusko Jaurlaritzak enpresaren akzioen %40 bazuen ere, maiatzean paper enpresa ekimen pribatuen esku utzi zuen; horrek enpresaren gainbehera eta 254 lanpostu suntsitzea ekarri zituen.

Eusko Jaurlaritzak iragarri du 200 milioiko superabita duela, diru-bilketak fiskalagatik. La Naval enpresak 42 milioi euro behar ditu, Muebles Xey enpresak 30 milioi, Vicrilak 50 milioi... Halere, argi gelditu da enpresariei dirua ematea diru publikoa xahutzea dela, eta enpresariei bakarrik egiten diela mesede eta ez duela lanposturik sortzen. Enpresa horiek nazionalizatu egin behar dira, langileena izan dadin eta langileek demokratikoki berma dezaten enpresaren etorkizuna. Sestaoko ontziolaren bernazionalizazioa langileen kontrolpean eta azpikontrataturako langileak enpresan sartzea dira Ezkerraldean kalitatezko lanpostu duinak defendatzeko bide nagusia.

Patronalak etekin ikaragarriak lortu ditu laguntzak ebatsiz eta enpresa publikoak pribatizatuz, lan baldintzak prekarizatuz, hitzarmen kolektiboak geldiaraziz eta soldatak murriztuz. Dena den, horrek ez ditu ekonomia eta lanpostuak hobetu. Kapitalismoak etekin pribatu handiena bilatzen du, eta egunero erakusten du sistema parasi-to hau ez dela gai kalitatezko lanpostu duinak sortzeko.

Ofentsiba horri erantzuteko, antolakuntza eta borroka beharrezkoa dira; gure sindikatuak gehiengoaren interesak eta borrokan dauden enpresen batasuna defendatu behar dituzte, La Navalen, Fagorren, BSHren Ofitaren, CELEN eta gainerako enpresen ekoizpena eta kalitatezko lan duinak defendatuz. Hori langile klasearen borroka da. Enpresa horien etorkizunean dago gazteen lanpostua.

**Borroka guztien batasuna!
Krisian dauden enpresen
nazionalizazioa, langileen
kontrolpean!**

**Eskubideak bermatzen dituen
lanpostu duinen eta hitzarmen
kolektiboaren defentsan,
mobilizazioa eta borroka!**





Errusiako 100 urte

Sozialismoaren aldeko

KONTRAPORTADAN HASTEN DA demokratikoen errespetua errealtate bilakatzea.

Beste iraultza bat behar dugu!

Ehun urteren ondoren, 1917ko Urriak garrantzia handia du kapitalismoaren aurka borrokatzen dugun langile eta gazteontzat. Historiako iraultza herriarrena, parte hartzaileena eta demokratikoetan izan zen, eta iraultza hartako ikasgaiak barneratzea beharrezkoa da gaurko gertakariak ulertzeko. Ezkerreko alderdi tradizionalak (komunista edo sozialista ohiak) eta ezkerreko alderdi erreformista berrietako agintari askorentzat, Errusiako Iraultza gaurkotasunik ez duen

gertakari historiko bat besterik ez da; gutxietsi egiten dute, eta askotan irudi distortsionatua eta faltsua zabaltzen dute. Jakina, hori ez da norbanako horiek klase arteko borrokan jokatzeko duten paperetik bereizten. Horietako asko kapitalismoaren egonkortasunaren apologista bilakatu dira, eta langile klasearen eskubide sozial eta gairaien ekonomikoak suntsitu dituzten herstura planak ezartzearen erantzukizun handia dute. Sektore horiek guztiek sozialismoarekin eta marxismoarekin lotutako ideia guztiak eten dituzte, eta ez dute begi onez ikusten Errusiako Iraultza.

Urriko Iraultza gizateriaren gertakari garrantzitsuena izan zen, bere izaera askatzaile eta kontzienteagatik.

Lehen aldiz, iraultza baten helburua ez zen izan klase arteko banaketa, zapalkuntza ekonomikoa eta Estatua mantentzea, beste iraultza burgesekin gertatu zen bezala. Iraultza haren helburua gizarte klasistaren erlikiak suntsitzea eta aurrekaririk gabeko jauzi bat egiteko baldintza material eta kulturalak sortzea ziren.

Paradoxikoki, boltxebikeek 1917an zituzten eginbehar eta arazo asko gaur egungoaren oso antzekoak dira; kapitalismoaren krisiak desberdintasun soziala, langabezia masiboa, zapalkuntza nazionala, gerra inperialistak eta ingurugiroaren aurkako mehatxuak areagotu ditu, biztanle gehienen etorkizuna kolokan jartzeraino. Herrialde kapitalista garatu

Iraultzaz geroztik, era

borrokak aurrera jarraitzen du!

eta inperialistetan, Latinoamerikan, Ekialde Hurbilean... Urri sobietikoaz geroztik izandako gertakari historikoek erakusten digute ez dagoela langileen askatasuna lortzeko hirugarren biderik. Porrot egin duten SESBren eta Europako ekialdeko erregimen stalinisten gainbeheraren ondoren indarra hartu zuen "kapitalismo bihozberaren" ideiak sortutako ilusioek. Kapitalismo posible bakarra sufritzen dugun hauxe da: eguneroko amesgai-ztoa milaka eta milaka pertsonentzat.

Ezker Iraultzaileak mendeurrena ospatuko dugu zenbait ekimenekin: web orrialde berezi bat sortu dugu (www.revolucionrusa.net); bertan aurki daitezke, besteak beste, iraultzako protagonisten funtsezko idatziak, artxibategi dokumentala, gaurko materialak, stalinismoari kritikak, Hirugarren Internazionalako eta Ezkerreko Oposizioko testuak, irudiak, bideoak eta kartelak. Bestalde, Federico Engels Fundazioaren laguntzaz ateratako liburua hauek ere lor daitezke: John Reeden *Diez días que estremecieron al mundo*, Alfred Rosmerren *Moscú bajo Lenin* eta Trotskyren *Lecciones de Octubre*.

Era berean, urrian eta azaroan hitzaldi publikoak egingo ditugu Euskal Herrian, mendeurrena ospatu eta bol-

txebismoaz eta marxismo iraultzaileaz eztabaidatzeko eta metodo horiek Euskal Herriko, Catalunyako eta Galizako herriek eta estatu osoko, Europako eta munduko gazte eta langileek bizi duten zapalkuntza nazionala eta soziala konpontzeko nola aplikatu hitz egiteko.

Errusiako Iraultzaren mendeurrena ospatzeko data eta leku gehiagoren berri gure web orrian emango dugu: www.euskalherriasozialista.net.



**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281

Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!

Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Errusiako Iraultzaz geroztik, 100 urtera

Sozialismoaren aldeko borrokak aurrera jarraitzen du!

Aurten Urriko Iraultzaren mendeurrena ospatuko dugu. Orduko hartan, Errusiako langileek, soldaduek eta nekazari behartsuek tsarismoaren mendeetako zapalkuntzari eta umilazioari bukaera eman zioten; burgesiaren eta lurjabe handien boterea hautsi zuten eta gizarte berri bat eraikitzeko oinarria jarri zuten.

Errusian 1917ko otsailean eta urrian izandako gertakariak mundu osoa irauli zuten: esklabuak jabeen kateetatik aska zitezkeela, masa zapalduak gizartea zapaltzailerik

gabe antola zezaketela erakutsi zuten. Urriko Iraultzaren indarra mundu osoan nabaritu zen: Alemanian, Austrian, Hungarian, Finlandian, Italian, Bulgarian, Estatu espainiarrean, herrialde kolonialetan... Kontinente guztietako langile klasea ukitu zuen Urriko mezuak eta boltxebikeen mezuak; eta eredu horretan oinarrituz, ezagutzen den inoizko alderdi iraultzaile garrantzitsuena sortu zuten: Internazional Komunista. Ordura arte kapitalismoak izandako mehatxu handiena izan zen.

Boltxebikeak eta askapen nazionala

Alderdi boltxebikeak gogor borrokatu zuen Tsarismoak inperio osoan zehar zapaltzen zituen nazio eta herriek jasaten zuten jazarpenaren aurka. Berezi arretatsua izan zen horrekin eta borondate handia erakutsi zuen zapalkuntza nazionala behin betiko buka zedin. Urriko garaipenaren ondoren, gobernu boltxebikeak, Lenin eta Trotsky buru zirela, autodeterminazio eskubidea eta askatasuna eman zien nazio zapalduak; modu horretan, praktikan erakutsi zuten iraultza sozialista dela arazo nazionala konpontzeko bide bakarra, kapitalismoaren fase inperialista honetan.

Boltxebismoaren politika iraultzaileak erakutsi zuen posible dela urteetako hizkuntza zapalkuntzak eta gutxiengo nazionalen aurkako pogromoek eragindako gorroto eta gatazkekin amaitzea eta kooperazioan oinarritutako bizikidetzeta eta herri eta nazio guztien eskubide

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER IRAULTZAILEA

- LOMCE, errebalida frankistak eta 3+2 atzera botatzearen alde. Hezkuntza publiko duina, demokratikoa eta doakoa haur eskolatik unibertsitatera bitartean.
- Osasun duina, doakoa eta unibertsala guztiontzat.
- Etxe kaleratzeak legez debekatzea. Etxebizitza publikoak alokairu sozialekin, bankuen esku dauden etxebizitza hutak desjabetu behar dira!
- Lan erreformak eta pentsioen erreforma indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin, soldataren %100arekin eta gazteentzat errelebu kontratuarekin.
- Benetako elkartasuna errefuxiatuekin: ez kuporik, zentro itxirik! Atzeritarren Legea indargabetu behar da eta CIEak itxi!

- Pribatizatu dituzten zerbitzu publikoan bermunizipalizatu behar dira, langile kopurua mantendu edo handiagotuz eta lan eskubideak bermatuz.
- 1.100 euroko oinarritzko soldata eta 35 orduko lan astea soldata jaitsi gabe.
- Adierazpen, elkartze eta antolatze eskubideak bermatzea. Mozal legea indargabetzea.
- Bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen nazionalizazioa pertsonak salbatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren eta errepublika sozialistaren alde.